

Intsekturik txikienak nukleorik gabeko neuronak ditu

Lomonosov Mosku Estatu Unibertsitateko ikertzaile batek *Arthropod Structure & Development* aldizkarian azaldu du nola moldatu dituzten *Megaphragma* generoko liztorrek nerbio-sistemako zelulak beren gorputzak organismo zelulabakarren neurrietara parekatzeko (irudian paramezio baten eta ameba baten ondoan ageri da).



Megaphragma mymaripenne liztor bat paramezio baten eta ameba baten ondoan. ARG.: ALEXEY POLILOV.

Egindako ikerketan, ikusi dute ale helduetan nerbio-sistema zentraleko neurona gehienek ez dutela nukleorik (ez gongoiletan, ez garunean). Hain zuzen, 339-372 neurona nukleodun bakarrik aurkitu dituzte liztor helduetan. Larbetan, aldiz, 7.400 neuronak dute nukleoa; larben garapeneko azkeneko fasean galtzen dute nukleoa. Ikertzaileak nabarmendu du ezen, nukleorik ez izan arren, intsektuok gai direla bai hegan egiteko bai ostalariak bilatzeko. ●

Sciencek atzera egin du neke kronikoaren auzian

Neke kronikoari buruz duela bi urte argitaratutako lan bat atzera bota du orain *Science* aldizkariak, “txostenean eta ateratako ondorioetan konfiantza galdu duelako”. Lan hartan, neke kronikoaren jatorrian XMRV birusa egon zitekeela eman zen aditzera, eta halaxe argitaratu zuen aldizkari honek 2009ko abenduko zenbakian. Hori baieztatu izan balitz, aurrerapauso bat zatekeen gaitza ezagutzeko eta tratamenduak bilatzeko bidean. Alabaina, txostenak hasieratik piztu zuen susmoa mundu osoko ikertzaileen artean, argitaratu ziren emaitzetan azaltzen zenaren

aurka haiek ez baitzuten topatzen birusaren arrastorik beren pazienteen odolean. Ikertzaileen ustez, txostenean azaltzen ziren ikerketan akatsak zeuden, eta, beraz, ondorioak ez ziren zuzenak.

Kritikak aintzat hartuta, *Science* aldizkaria txostenaren egileekin harremanetan jarri zen, zuzenketa bat eskatzeko. Aldizkariako editoreak adierazi duenez, ordea, egile guztiak ez zeuden okerra onartzeko prest. Horrenbestez, *Sciencek* ezohiko erabakia hartu du, eta, atzera bota du lan hura. ●

Gainazalean irudiak proiektu ditzaketen ukipen-lenteak sortu dituzte

Untxietan probatu dituzte lentillak, eta ez dute hauteman albo-ondoriorik

Washingtongo Unibertsitateko eta Finlandiako Aalto Unibertsitateko ikertzaile-talde batek gainazalean irudiak proiektu ditzaketen ukipen-lenteen prototipoak sortu dituzte. Oraingoz, pixel bakarra du gailuak, baina, ikertzaileek adierazi dutenez, nahikoa da funtzionatzen duela frogatzeko. Azkenean, mezu motzak zuzenean erabiltzaileen begian bistaratu ahal izango direla diote.

“Lehenengo aldiz lortu dugu bizirik dagoen begi batean jarritako pantaila bat kablerik gabe elikatzea eta kontrolatzea”, adierazi du Babak Parviz Washingtongo Unibertsitateko ingeniariak elektrikoko irakasleak. Izan ere, sortutako lenteak untxi bizien begietan probatu dituzte, eta, *Journal of Micromechanics and Microengineering* aldizkarian adierazi dutenez, ez dute albo-ondoriorik hauteman untxien begietan.

Informazioa kablerik gabe jaso eta bistaratzeko, ukipen-lenteak, batetik, antena bat du kanpoko

iturri batetik energia jasotzeko. Bestetik, zirkuitu bat du integratuta jasotako energia hori gordetzeko eta zafirozko txip garden batera transmititzeko. Txipak, azkenik, LED urdin bat du, milimetro-heren bateko diametrokoa. Gaur-gaurkoz, inon jarri gabe, metro bateko distantziatik jaso dezake lenteak beharrezko energia. Untxiaren begian jarrita, berriz, bi zentimetrora egon behar du energia-iturriak. ●



Untxi bat, gainazalean irudiak proiektu ditzaketen lentearekin. ARG.: WASHINGTONGO UNIBERTSITATEA.